

HENDAIAKO HONDARTZA LAPURDI



Aurkezpena

Euskal kostaldean, Hendaiak eskaintzen du: euskal erlaitza, Txingudi badia, Abadia gaztelua, Kaneta portua, mendetako etxeak eta senaia basatiak...

Hendaiako historia, gaur egun ezgutzen dugun moduan, 1654ko maiatzaren 20an hasi zen Urruñako jurisdikziotik emantzipatuz.

Urte batzuk geroago, 1659. urtean, Konpantzia uhartean negoziazio erabakigarriak egin ziren. Mazarin kardinala eta Don Luis de Haro jaunak Pirinioetako bake ituna sinatu zuten bertan. Hitzarmen horrek Luis XIV.a eta MariaTeresa I. Austriakoa, Espainiaren erregearen alaba zenaren arteko ezkontza finkatu zuen. 1864an, trenbidearen etorrerak hiriaren garapen ekonomiko eta turismo jardueraren gorakada azkartu zituen. Itsas frontea euskal estiloko etxez edertu zen, gaur egun oraindik ere nonahi daude hondartzako 3 kilometroetan zehar. Hiri barnean, Kaneta portua, bere udako sardinadengatik ezaguna, Vaubaneko harresien hondarrak gordetzen ditu. Monumentu Historikoetan inskribaturiko bi etxe daude bertan: Bakhar Etxea, Pierre Loti (1850-1923) idazlearen egoitza, eta Villa Mauresque misteriotsua.

Gure gaurko txangoak, 3,5 kilometroko hondartza, itsas sagailo handietatik berez babesturik den ur eremua, A kalitatezko bainu ura eskaintzen digu.

Hendaiako hondartza, Hondarraitz, jostaleku ederra da haurrentzat nola helduentzat eta segurtasun betean baina daiteke bertan. Surferako leku hauta da ere, uhinak menderatzen ikasteko leku ezin hobea. Hondar finezko zerrenda luze horretan inon baino hobeki jardun daiteke korrika edo aire zabaleko beste zernahitan.

Jardueraren egunak eta ordutegiak:

- Irteera-data: 2026eko ekainaren 17an, asteazkenean
- Irteera lekua: Fundación Estadio Fundazioa
- Autobusaren irteera-ordua: 09:00etan
- Hondartzara heltzeko ordua: 10:45etan.
- Gasteizera itzultzeko garraioa: 17:00etan.
- Fundación Estadio Fundaziora iristeko ordua: 18:45etan (gutxi gorabeherako ordutegia).

* Oharra: autobuseko bidaiak ordu 1 eta 45' inguruko iraupena du.

Jardueran parte hartzeko gomendatzen den materiala:

- Bainu-jantzia eta oinetako egokiak hondartzarako.
- Oinetako egokiak: museoetara joatea eta hirian ibiltzea, nahi izanez gero.
- Eguzkitako betaurrekoak.
- Eguzki-babesa eta ezpainetakoak.
- Botikin pertsonala (esparatrapua, tiritak edo compeed, baselina, medikazio pertsonala, iodo-tintura, benda txiki bat...).
- Telefono mugikorra.
- NAN edo pasaporteak.
- Autobuserako arropa. Ura izanez gero, begiratu arropa aldatzeko aukera.